


Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan

EAE 2016

Emaitzen sintesia



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

2018ko abendua

Aurkibidea

1. Kultura-gastua 2016an	3
2. 2008-2016 aldiko bilakaera	6
3. Kultura gastu-publiko osoaren ondoan	10
4. Jardun-eremu nagusiak	14
5. Kultura-enpleguaren bilakaera	19



1. Kultura-gastua 2016an

EAEko herri-administrazioek 428,9 milioi euro jarri dute kulturarako

EAEEn 428,9 milioi eurokoa izan zen kultura-gastu kontsolidatua 2016. urtean; alegia, 197,4 euro herritar bakoitzeko. Gastu horretatik % 62,7 udalek egin dute (268,8 milioi), foru-aldundiek % 20,2 (86,7 milioi) eta Eusko Jaurlaritzak % 17,1 (73,3 milioi).


Gero eta gehiago jartzen da kulturarako aurrekontu publikoetan

Gorakada nabarmena izan du aurrekontu publikoetan kulturarako jartzen den kopuruak 2012aren aldean (segida historiko guztian urte hartan egin zen gasturik txikiena kulturean).



1. irudia

Kulturako gastu likidatua eta gastu kontsolidatua (euroak). 2008-2016



2. irudia

EAEko herri-administrazioek kulturan egindako gastuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (euroak eta % horizontala). 2010-2016

Kapitulu ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritza		Foru-aldundiak		Udalak		GUZTIRA	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Gastu arrunta	2010	55.840.285	15,7	62.626.122	17,6	237.098.159	66,7	355.564.566	100,0
	2012	57.335.603	17,1	63.604.917	18,9	214.945.056	64,0	335.885.576	100,0
	2014	69.917.139	20,0	65.569.014	18,8	213.272.749	61,2	348.758.902	100,0
	2016	59.686.035	15,8	72.948.496	19,3	245.351.968	64,9	377.986.499	100,0
Kapital-gastua	2010	20.210.732	17,3	30.508.016	26,1	66.212.344	56,6	116.931.092	100,0
	2012	18.908.807	36,8	22.732.540	44,2	9.773.487	19,0	51.414.834	100,0
	2014	14.666.760	33,9	15.060.313	34,8	13.504.855	31,2	43.231.929	100,0
	2016	10.337.245	25,1	10.467.022	25,4	20.438.363	49,6	41.242.630	100,0
Finantza-aktiboak eta finantza-pasiboak	2010	3.830.966	58,0	2.644.444	40,0	129.672	2,0	6.605.082	100,0
	2012	839.651	42,2	1.012.176	50,9	135.837	6,8	1.987.664	100,0
	2014	34.588	2,3	1.001.475	66,4	471.131	31,3	1.507.194	100,0
	2016	3.320.296	34,1	3.407.929	35,0	3.019.252	31,0	9.747.477	100,0
GUZTIRA	2010	79.881.983	16,7	95.778.582	20,0	303.440.175	63,3	479.100.740	100,0
	2012	77.084.061	19,8	87.349.633	22,4	224.854.380	57,8	389.288.074	100,0
	2014	84.618.487	21,5	81.630.802	20,7	227.248.735	57,8	393.498.024	100,0
	2016	73.343.576	17,1	86.823.447	20,2	268.809.583	62,7	428.976.607	100,0



2. 2008-2016 aldiko bilakaera

Eten egin da 2008an hasitako beherako joera administrazio-maila guztietan

Administrazio-maila desberdinen kulturako gastu likidatuaren bilakaerak joera positiboa daukala erakusten du aztertu den azkeneko aldiak. Hazkunde handiena erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan izan du, halako erakundeak ugaritzeaz bat (lehen 44 ziren eta gaur egun 51), % 33,5eko hazkundera izan baita sektore horretan 2008tik hona (47,1 milioi euro gehiago).


Udalek ere datu positiboak izan dituzte 2016an, eta gastu likidatua % 14,0 handitu da (29,7 milioi euro), nahiz oraindik ez den iritsi 2008 eta 2010eko gastuetara. Beherakada nabarmenena 2010 eta 2012 urteen artean gertatu zen (-% 26,7).

Eusko Jaurlaritzak % 2,2 gehiago gastatu du 2008an baino. Azkenik, foru-aldundiek ere kulturarako 2014an baino % 2,8 gehiago jarri dute aurrekontuetan (2,1 milioi euro). 2008-2016 aldi guztia kontuan hartuta, % 24,6ko jaitsiera erregistratu da.



3. irudia

Kulturako gastu likidatuaren bilakaera, erakunde motaren arabera (Oinarrizko indizea 100 = 2008). 2008-2016




- Udalak
- Foru-aldundiak
- Eusko Jaurlaritzak
- Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak
- Gastu likidatua, guztira



4. irudia

Kulturaren egindako gastua, entitate motaren arabera (eurotan). 2008-2016



- Udalak
- Foru-aldundiak
- Eusko Jaurlaritza
- Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak



Aldakuntza	Eusko Jaurlaritzza	Foru-aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak
2008-2016	▲% 2,2	▼% 24,6	▼% 19,5	▲% 33,5
2014-2016	▼% 14,5	▲% 2,8	▲% 14,0	▲% 20,5



3. Kultura gastu-publiko osoaren ondoan

Kultura garrantzia hartzen ari da berriz ere udaletako gastu publikoan

2016an, kulturako gastu likidatuaren pisu erlatiboa, aurrekontu osoarekin alderatuta, % 8,6koa izan zen udaletan, % 2,8koa foru-aldundietan, eta % 0,7koa Eusko Jaurlaritzan.

Udalek ahalegin handiagoa egin dute kulturaren mesedetan, eta puntu bat gorago daude orain 2014ean baino; alegia, buelta eman diote azken urteetako joerari.


2008tik, Eusko Jaurlaritzaren zifrak positiboak dira: handitu egin dira bai aurrekontu totala eta bai kulturako aurrekontua, nahiz eta kulturako aurrekontuaren hazkundera txikiagoa izan den aurrekontu totala baino.

Aldundietan jaitsiera handiagoa izan da: 2008tik 2016 bitartean % 24,6 gutxitu da kulturako gastu likidatua, aldiz, aurrekontu totala % 4,0 besterik ez. 2014tik hona, gora egin du kulturako gastuak, ez, ordea, aurrekontu osoak bezainbeste.



5. irudia

Kultura-ahaleginaren bilakaera administrazio-mailaren arabera (%). 2008-2016




Aldakuntza 2008-2016	Eusko Jaurlaritzza	Foru aldundiak	Udalak
Kulturako aurrekontua	▲% 2,2	▼% 24,6	▼% 19,5
Aurrekontua guztira	▲% 11,2	▼% 4,0	▼% 13,3

Aldakuntza 2014-2016	Eusko Jaurlaritzza	Foru aldundiak	Udalak
Kulturako aurrekontua	▼% 14,5	▲% 2,8	▲% 14,0
Aurrekontua guztira	▲% 3,1	▲% 6,9	▲% 0,8



6. irudia

Kulturako gastu likidatuaren eta aurrekontu totalen bilakaera (Oinarrizko indizea 100 = 2008), eta ahalegin kulturala (%), administrazio-mailaren arabera. 2008-2016



4. Jardun-eremu nagusiak


Ez da asko aldatu kulturako gastuaren norabidea

Kulturan egindako gastu publikoaren erdia baino gehiago (% 58,4) arte eta industrietara bideratu da; laurden bat ondarera (% 25,9), eta gainerakoa, batetik, jaietara eta herri-kulturara (% 8,0) eta, bestetik, zuzendaritza eta zerbitzu orokorretara (% 7,7), hots, sektore zehatz batekoak ez diren funtzionamenduko gastuetara.



7. irudia

EAEko herri-administrazioek kulturaren egindako gastua, kulturaren esparruaren arabera (%). 2010-2016



- Arte eta industriak
- Jaiak eta herri-kultura
- Ondarea
- Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak
- EAE, guztira

Aldakuntza	Ondarea	Arteak eta industriak	Jaiak eta herri-kultura	Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	EAE, guztira
2010-2016	▼% 30,1	▲% 1,3	▼% 12,4	▼% 2,4	▼% 10,5
2014-2016	▼% 7,6	▲% 15,3	▲% 8,8	▲% 34,0	▲% 9,0

Kultura-ekintza eta musikan, hor jarduten da batik bat alor publikoa

Kultura-ekintza (% 25,5) eta musika (% 18,8) dira gastu handiena sortzen duten sektoreak.

Zeharkako programazioko jarduerak, balio anitzeko ekipamenduak eta zerbitzu espezializatu gabe komunitario eta sozio-kulturalak dira kultura-ekintzak.


Erdi-bidean daude gastu osoaren % 7 eta % 10 arte eragiten duten sektoreak: museoak (% 10,6), liburutegiak (% 8,4), zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (% 8,0), antzerkia eta dantza (% 7,8) eta jaiak eta herri-kultura (% 7,7).


Gainerako sektoreek % 5 ere ez dute: ondareak eta arkeologiak (% 4,8), zinemak eta ikus-entzunezkoak (% 3,9), agiritegiek (% 2,1), ikusizko arteek (% 1,6), literaturak eta argitalpenak (% 0,5) eta bertsolaritzak (% 0,3).



8. irudia

EAEko herri-administrazioek kulturan egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2010-2016





5. Kultur enpleguaren bilakaera

Gero eta enplegu publiko gehiago kulturean

EAEko herri-administrazioak 2.879,6 lanpostu ditu kulturean, zuzenean edo zeharka.


Orotara esanda, krisiak ez dio eragin kulturako enplegu publikoari: 2010etik izan duen bilakaerak erakusten du % 5,7 hazi dela (2.725,0 enplegu publiko propio orduan eta 2.879,6 orain).

Enplegu publiko propioak erakunde motaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu Eusko Jaurlaritzan % 20,1 hazi dela kulturako enplegua eta % 15,8 erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan. Aitzitik, foru-aldundietan eta udaletan kulturako enplegua gutxitu egin da, % 10,0 eta % 2,0, hurrenez hurren.



9. irudia

Kulturako enplegu publiko propioa (I. kapitulukoa) entitate-motaren arabera (urtean urteko lanpostuak). 2008-2016



Emakumezkoek betetzen dute enplegu publiko propioaren erdia baino gehiago (% 56,4). Zuzeneko langile gehien dituzten bi administrazioak hauek dira: batetik, erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak eta, bestetik, udalak. Udaletan, emakumeek enplegu publikoaren % 62,3 betetzen dituzte. Erakundeetan, eta horiek dira enplegu gehien sortzen dutenak, emakume langileen kopurua % 52,9koa da.

10. irudia Kulturako enplegu publiko propioa (I. kapituluko) entitate-motaren eta generoaren arabera. 2016


Erakundea	Absolutuak		%	
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Eusko Jaurlaritza	45,7	39,6	53,6	46,4
Foru-aldundiak	159,5	138,5	53,5	46,5
Udalak	662,2	401,0	62,3	37,7
Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	757,9	675,3	52,9	47,1



Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan

EAE 2016

Emaitzen sintesia



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura